

Ezpalak

JON TORNER

Jose Ignacio Telletxea

(Donostia, 1928) historialaria hilaren 8an hil zen minbizi baten ondorioz. Telletxea Venezuelako eta Mexikoko Historia Akademietako kide zen, baita Euskaltzaindiko ohorezko kide ere. 2002an Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zuen bere lan guztiaren aitortpen eta ordain gisa.

Tanttaka konpainiaren *Emakumeak irarapean* obrak irabazi du Donostia Antzerki Saria. Saria hilaren 27an –Antzerkiaren Nazioarteko Egunean– jasoko du Tanttakak, eta obra irabazle eskainiko du Victoria Eugenia antzokian. 10.000 euroko saria jasoko du taldeak; 8.000 euro egun horretan eta beste 2.000 aurrerago, baldin eta 2010. urtea amaitu aurretik Donostian euskarazko antzezlan berria eskaintzen badu.

Menchu Gal (Irun, 1918) margolaria joan den asteazkenean hil zen bere jaioterrian 90 urte zituela. Margolari ezagunak bere ibilbidean zehar sari ugari jaso zituen: Pinturako Espainiako Sari Nazionala 1960an, Gipuzkoako Urrezko Domina 2005ean eta Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria 2007an. Bestalde, Irungo Udala Gali eskaintako museo bat eraikitzea aztertzen ari da, eta helburu horri lotuta iaz margolariaren 37 obra erosi zituen 766.000 euro ordainduta.

Koldo Izagirre Charles de Coster idazlearen (Munich, 1827-lexelles. 1879) *Ulenspiegel* elezaharra liburua plazaratu du euskaraz, Elkar eta Alberdania argitaletxeekin. Thyl Ulenspiegel pertsonaia pikaroaren bizipenak ditu ardatz nobelak, eta istorioa Espainia okupatzailearen hatzaparretatik liberatu nahi duen XVI. mendeko Flandrian kokatu zuen Charles De Costerrek.

Etsaiak taldeak *Apurtu arte* izeneko diskoa plazaratu du. Lekeitiarrek iazko abenduan grabatu zuten lan berria Amoretoko Musikorta estudioan. Hilaren 21ean Lezoko (Gipuzkoa) Topagunean eskainiko du kontzertua Etsaiak, 28an Zorrotzako Gaztetxean (Bilbo, Bizkaia), apirilaren 5ean Añorgan (Gipuzkoa) eta 26an Leitzaan (Nafarroa).

1995ean baino euskarazko 200 liburu gutxiago argitaratu ziren iaz



Joan Mari Torrealdai iaz euskaraz eta elebitan argitaratu ziren liburuen azterketa jaso du *Jakin* aldizkariaren 164. zenbakian. Bildutako datuen arabera, 2005ean baino 198 liburu gutxiago kaleratu ziren iaz: 1.818. Torrealdaien hitzetan, jaitsiera horrek zer ekar lezakeen esateko goizegi da: "Berrehun titulu gutxiago ez da hutsaren hurrengo, baina ikusi egin behar da zehazkiago zein liburu mota den. Lehenik, esan liteke mende honen batez bestekoaren gainetik gaudela, 300 titulu goitik, eta ardatz nagusietan ez dela krisirik antzematen".

1.246 obra zintzilikatu dituzte Euskadiko Liburutegi Digitalean

EUSKO LEGEBILTZARRAREN eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arteko akordioari esker 1.246 obra digitalizatu dituzte. Dagoeneko sarean ipini dituzte faksimile eran, Euskadiko Liburutegi Digitalean (www.euskadi.net/liburutegidigitala). Digitalizatu dituzten liburu guztiak Legebiltzarrean gordeta zeuden aurretik. Interneten zintzilikatu duten liburu horietako bat, Betolazaren *Doctrina Christiana* da, 1596an argitaratutakoa.

Juan Jose Larrea historia irakasleak *Berria*: «Historialariok badakigu non murgiltzen garen, baina egia da, eta gure akatsa da, batzuetan ez garela gauza jendeari hau transmititzeko, eta horrela hedatu da ideia kaltegarri bat, alegia historian dena irizti kontuak direla».

Josu Montero antzerkigilearen hitzak jaso ditu *Garak*: «Antzerkiko profesionalak ere ez dute antzerkirik irakurtzen. Jada ez da literatur generotzat hartzen, literatura unibertsaleko autore handienek antzerkia idatzi duten arren».

Oihane Perea bertsolariak *Diario de Noticias de Alavan*: «Gaur egun zerbait aportatzeko eta nor izateko beharrezkoa dela norberaren nortasunetik asko jartzea. Hori da, gero eta gehiago, publikoak baloratzen duena. Teknika

on bat manciatzea eta ebidentziak botatzea, hau da, jendeak espero dituen gauzak edo puntuatuak izango direla uste duzun gauzak kantatzea... hori obsoleto geratzen ari da. Gaur egun bertsolariak beste norbaitek emango ez diona eman behar dio publikoari: bere nortasuna adierazi behar du.».

Anjel Larrañaga, Kupela taldeko kideak *Deian*: «Ez dut uste erromeriek indarra galdu dutenik, gure inguruan behintzat asko izaten dira. Gipuzkoa aldean erromeria ugari egiten dira, eta herri txikietatik festa gehienetan izaten dira trikitilariak. Egia da festa orain tabernetan egiten dela gehienetan, baina erromerietara ere beti hurbiltzen dira gazteak, eta dantza ederki egiten dute. Hala ere, esan beharra dago, neskek gehiago egiten dutela dantzan mutilek baino».



Gu ere sentitu gara liburutegiko arratoi

Firmin

Sam Savage / Seix Barral (2007)

Firmin izeneko arratoiak nola, halaxe eskuratu nuen Sam Savage idazle estatubatuarren liburu hau, liburutegiko apaletan marruskatuz, kasualitatez ia, "Berrienak" saillean. Firmin Bostongo (AEB) liburu-denda batean jaino zen 1960ko hamarkadan. Hantxe deskubritu zuen mundua, liburuz jositako apal artean. Egoerak bultzatuta, bere amak James Joyce idazle irlandarraren *Finnegans Wake* nobelaren orriekin eraiki zuen hamahiru seme-alabentzako bizitokia. Gazteena izaki, Firminek zailtasunak zituen amaren bularrari heldu eta zerbeza zaporeko esnea zurrupatzeko. Gosea asetzeko *Finnegans Wake* liburuko pasarteak irensten hasi zen, hortz artean txikituta lehenengo, eta begiekin gero. Irakurtzen zekiela konturatu zen, eta gizakiak berezko zituen dohainak garatu zituela. Hunkitzezko gai zen, haserretzeko, maitatzeko, barre egiteko, kantatzeko, pianoa jotzeko, ardoaz gozatzeko eta amesteko, batez ere amesteko. James Joyce irlandarraren nobela jan zuen lehenengo. Tripazorria engainatu ez, eta liburu gehiago irentsi zituen amorrazioz. Apal artean bizirautean ikasi zuen. Piztia bat zen, piztia itsusia. Arratoi buruhandi zikina. Berak bazekien hori, ispiluak ez zuen gezurrik


esaten. Baina bizitzari aurre egitea erabaki zuen, auzoko zinema areto zaharrea Ginger Rogers eta Fred Astaire aktoreen konpainiaz gozatzeko besterik ez bazen ere, edo idazle Handien —Jack London, Stevenson, Dostoiievski, Balzac...— babesa sentitzeko.

Firmin, Sam Savagen aurreneko nobela, Minneapoliseko argitaletxe txiki batek plazaratu zuen estreinakoz, baina ahoz ahoko komunikazioari esker oihartzun handia izan du. Liburu ederra da, bizitzari, heriotzari, bakardadeari, adiskidetasunari eta literaturari buruzko istorio bitxia, planteatzen duen ikuspegiagatik bereziki. Umoretzu eta ironikoa da batzuetan, garratz eta kirasduna besteetan. Bizitza bera bezalakoa. Erraz irensten da, baina ez pentsa aho zapore gozoa uzten duenik beti.



JON TORNER

ATALAIA JATETXEA



Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun
Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com
web orria: www.hotelatalaia.com